

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

500 inguru dira Nafarroako Gobernuaren ikastaroen bitartez euskara ikasten duten langile publikoak

Hiru modalitate eskaintzen dira: presentziazkoa, trinkoa eta autoprestakuntzakoa

Jueves, 06 de octubre de 2011

500 ikasle inguru matrikulatu dira [Nafarroako Gobernuak 2011-12 ikasturterako eskaintzen dituen euskara-ikastaroen](#) modalitate batera. Ikastaroak Foru Erkidegoko Administrazio Publikoetan lan egiten duten langileentzat dira. [Euskarabidea](#) prestakuntza hau hiru modalitatetan emateaz arduratzen den Foru Gobernuaren erakundea da: presentziazkoa, trinkoa eta autoprestakuntzakoa. Azken hau aste honetan hasi da.

Presentziazko moduluari dagokionez, ikasturte honetarako zazpi talde antolatu dira: lau goizez, bat eguerdian eta bi arratsaldez.

Astelehenetik ostiralera, bi orduz, modu presentzialean euskara ikasi ahal izango duten ikasleak 103 dira.

Bestalde, 130 orduko ikastaro trinkoetan 57 lagun matrikulatu dira lau taldetan: A2 maila, irailean; A1 eta C1 mailak, urrian; eta B2 maila, azaroan.

Azkenik, duela urte batzuetatik hona autoprestakuntzako modulu bat eskaintzen da. Honek bi aldaera ditu:

- Tutoretzapeko autoprestakuntza: ikasleek baliabide telematikoen bitartez sei orduko lana egin behar dute Euskararen Nafar Institututik kanpo, eta astean behin bertara joan behar dute ordu eta erdiz ahozko adierazpena lantzerako eta tutoretza egitera. Aurten 235 ikasleek aukeratu dute modalitate hau.

- Erdi-presentziazko autoprestakuntza: ikasleek baliabide telematikoen bitartez sei orduko lana egin behar dute eta, gainera, astean presentziazko bi saio dituzte, bina ordukoak. Aurten 91 lagunek aukeratu dute modalitate hau, bost taldetan banatuta.

Era honetako prestakuntzaren eskaera gero eta handiagoa izan da eta, beraz, gehien erabiltzen diren tresnak etengabe eguneratu behar izan dira: esate baterako, Moodle plataforma, mundu mailako hedapena duena.

Ikastaroen bigarren fasean izena emateko epea azaroan zabalduko da.